

Bezeroak gure produktuak erostera erakartzeko gauza ezberdinak egingo ditugu. Alde batetik, bezeroek gure enpresa ezagutzeko marketing eta publizitate kanpaina batzuk egingo ditugu. Hasteko, telebistan gure ondasunen iragarkiak jarriko ditugu, zer saltzen dugun adieraziz eta horrela erosleek zer erosten duten jakin dezaten. Gainera, gaur egun sare sozialak asko erabiltzen dira; instagrama, facebooka, tweeterra eta tik toka besteak beste. Gizarteko ia gende guztiak erabiltzen du aipatutako sare sozialen bat gutxienez, beraz bertan iragarkiak jartzen baldin baditugu, gure bezeroengana ere iritsiko gara eta gure enpresan produzitzen duguna ezagutuko dute.

Beste aldetik, bezeroak gurekin harremanetan jarri ahal izateko gauza ezberdinak pentsatu ditugu. Lehenik, urtean zehar hiru edo lau hitzaldi egingo ditugu, bai presentzialak eta baita birtualak ere. Gure enpresa hau berria denez, gure produktuak bezeroei aurkeztu eta azaltzeko modu egokia dela uste dugu, eta gainera elkar ezagutzeko aukera ona dela uste dugu. Hitzaldi hauetan erosleek zalantzak argituko ditugu eta gure baxera erosi aurretik, ikusteko eta probatzeko aukera izango dute. Bigarrenik, aurretik aipatu dugun bezala, sare sozialetako kontuak izango ditugu iragarkiak igotzeko, baina baita enpresaren produktuen argazkiak igotzeko eta gure bezeroek gure produktuak erabiltzen dituzten argazkiak igotzeko ere. Horrela, sare sozialen bidez elkarrekin harremanetan modu erraz eta erosoan egon gaitezke, korreo elektronikoa izango dugun harremanetan, sare sozialen bidez errazagoa delako. Laburbilduz, bilera presentzial eta birtualak, sare sozialak, korreo elektronikoa eta telefono zenbakia izango ditugu bezeroekin harremanetan egon ahal izateko.

Jarraituz, gure produktuak denda fisikoetan eta web gunean salduko ditugu. Bi denda fisiko izango ditugu Donostian. Bertan gure ondasunak egongo dira erosleek etorri eta erosi ahal izateko. Galdera edo zalantza bat baldin badute dendara etortzeko aukera izango dute eta bertan lanean egongo diren langileei galdetzeko aukera izango dute. Bigarrenik, badakigu bezero guztiak ez direla Donostikoak izango eta ezingo direla denda fisikora gerturatu gure baxera erosi ahal izateko, horregatik online denda ere izango dugu eta horrela internetetik erosteko aukera izango dute. Ildo beretik, guregana gerturatu ezin daitezkeen pertsona horiek gure korreo elektronikora idazteko aukera izango dute nahi dutena galdetzeko, eta guk egunero erantzuko ditugu.

Azkenik, gure enpresa iragarri, bezeroekin harremanetan jarri eta beraiek gure produktua erosten dutenean, etxera iritsi eta ondasunarekin arazoren bat izango balute, bueltatzeko eskubidea izango lukete. Bai online bidez eta baita denda fisikoan erosi arren, bueltatzeko garaian nahiago luketeen moduan bueltatzeko aukera izango lukete. Aipatu beharra dago hilabete bakar bat dutela erositako produktua bueltatzeko.

